

MARRAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

Onddoak eta bioaniztasuna

1) Hartzaileak.

Barakaldoko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetako ikasleei zuzenduta dago.

2) Gaia.

Marrazkien gaia "Onddoak eta bioaniztasuna" izango da: Fungi Erresuma, Mikologia, onddoak, perretxikoak, onddoak eta ekologia, onddoek ingurumenean duten garrantzia, onddoek gizakiontzat dituzten onurak, etab.

3) Teknika eta euskarria.

Marrazki artistikoaren teknika erabiliko da, era guztietako materialak erabil daitezkelarik (margoak, pastelak, ikatz-ziriak, argizariak, etab.).

Ez da era digitalean sortutako marrazkirik onartuko.

Marrazkia DIN A3 (297x420mm) edo DIN A4 (210x297mm) formatuko euskarri laukizuzen horizontal ala bertikalean egin beharko da. Parte-hartzaile bakoitzeko marrazki bakarra onartuko da.

4) Bidaltzeko epeak eta lekua.

Marrazkiak aurkezteko epeak 2025/05/15 eta 2025/09/30 artekoak izango dira.

Marrazkiak hemen entregatu ahal izango dira:

- Barakaldoko Mikologia Elkartean aretoan, astelehenetan, 19:00etatik 20:00etara.
- Ikastetxeetan, non erakundeko kide batek jasoko dituen.

5) Sariak.

Epaimahaiak hautatutako marrazkiei honako sari hauek emango zaizkie:

- 1.Saria: 150 € inguruko balioa duen oparia.
- 2.Saria: 100€ inguruko balioa duen oparia.
- 3.Saria: 75€ inguruko balioa duen oparia.
- 4.Saria: 50€ inguruko balioa duen oparia.
- 5.Saria: 25€ inguruko balioa duen oparia.

Sariak 2025eko urriaren 11an Clara Campoamor Kultur Etxean burutuko den ekitaldi publikoan banatuko dira, Mikologia Elkartearen 50. Urteurrena ospatzeko *Mikologia Erakusketan*, hain zuzen. Irabazleei aurretik jakinaraziko zaie.

6) Epaimahaia.

Epaimahia batzorde antolatzaileak izendatutako hiru kidek osatuko dute.

Epaimahaiaren erabakia botoen gehiengoz hartuko da, eta ezin izango da apelaziorik aurkeztu.

Epaimahaiaren erabakia urriko lehenengo astean plazaratuko da.

Epaimahaia osatzen duten kideek ezingo dute familia-loturarik izan lehiakideekin.

7) Marrazkien erakusketa.

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar egindako lanak ekitaldia antolatzen duen elkarteari doan lagatzea. Lanak hedapen-helburuetarako edota paneletan zein ikus-entzunezko bitartekoetan (aldizkariak, egunkariak edo bestelako hedabideak) erakusteko erabili ahal izango dira.

8) Oinarrien onarpena.

Lehiaketan parte hartzeak, deialdiaren oinarrien erabateko onarpenarekin batera, epaimahaiak eta antolatzaileek hartutako erabakiekiko adostasuna dakar.

Barakaldoko Mikologia Elkartea

Antonio Trueba parkea, 1 (Liburutegi Nagusia, sotoan)

48902 Barakaldo

Barakaldon, 2025/04/28